

Larogeita hamar urte Erreenterian

JESUSEN BIHOTZEKO ANAIDIA

Mikel Ugalde

Larogeita hamar urte bete dituzte aurten Telleri-aldeko fraileek Erreenteriara etorri zirenetik. Bidezkoa den ospakizuna egina dute, gehienetan bezala, apaltasun osoz.

Gertaera hau dela eta, herrian egin duten lanagatik eskerrik beroenak eman nahi dizkiet urtez-urte, belaunaldiz-belaunaldi, irakaskuntzari eta bertako gazteak hezitzeari eskaini dioten lan eta ahaleginagatik. Aldi berean, gertaera honek gogorarazi dizkidan oroitzapenak mahairatu ditut ondorengo zertzeladetan.

Garbi utzi beharra dago, hemen esandakoak norbere ikuspuntutik jasoak daudela eta horrenbestez bakoitzaren esperientzia mugatuari dagokion alderoa ezinbestekoa dela. Izan ere berrogeita hamargarren hamarkadan ikasle izandako baten oroitzapenak dira batipat hemengoak. Beharbada gaur edo bihar oraingo ikasleek ez dituzte gauzak era berean ikusi eta sentituko. Horretaz gain, gainera, honek ez du gainontzekoek era berean bizi izan dutenik esan nahi. Hemen ere nori berea zuzenbidea, beraz.



Urruntasunaren presentzia

Horrelako zerbait sentitzen nuen "hermano"ekiko harremanetan. Zenbaitetan guk nahi baino nabarmenagoa zen beraien presentzia. Gertutik jarraitzen zuten ikaslearen ibilera, portaera, lana, jarrera, borondatea, izaera. Kontrola handia zen. Gure lan koadernoak noiznahi jasoko zituzten gure ariketak ikusi eta aztertzeko, txukuntasuna zaintzeko eta, labur esanda, bakoitzaren ibilera kontrolatzeko.

Gertutik jarraitzen gintuzten, baina presentzia hori, ordea, bertakoa bezain urruna gertatzen zitzaidan. Beldurrak agintzen zuen gure harremanetan. Beraiek ziren erakusleak eta gu geu erakutsitako bidetik jarraitzen zuten ardi otsanak; beraiek ziren epaileak eta gu geu epaituak. *Conducta y Aplicación* delako asignaturekin eman ohi zitzaion hasiera asteroko noten zerrendari. Eta kontuz gero arlo horietan zortziz beherako notak atera. Arbitroaren txartel horiaren antzeko abisua jasoko zuen ikasleak nahiz gurasoak. Fraile guztiak, egia esan, ez ziren berdinak, baina beldurra nien gehientsuenei. Inguruan ikusi baino ez ikusi nahia-go. Eskolatik elizara egin ohi zituzten joanetorrietan kalean topatzen banituen laster alde egingo nuen beste espaloira "hermano"ekin topo ez egitearren.

Etzeko giroaz, aitaren lanbideaz eta jaieguna igarotzeko moduz, esaterako, ez dut behin ere ezer galdetu izan zidateneko oroitzapenik. Beraientzat ondo prestatu beharreko mutilak ginen eta ikasi eta erantzun beharreko gaien inguruan sortzen zen, soilik, gure harremana. Arbelera irtenerazten gintuenetan ez zen saioa guk nahi ordurako bukatzen.

Ikasgelak jendez ongi osatuak zeuden, bete-beteak alegia. Ikasle disdiratsu izateko gauza ez ginenez gero, tontoen pelotoian gelditu gabe aurrera egitea zen nire, eta agian gainontzekoen, asmo nagusia.

Gurasoekin ere oso harreman gutxi izan ohi zuten. Normalean arazoren bat zegoenean deitzen zitzairen gurasoei. Gure etxean fraileren batekin hitzegin izan zutenekorik ez dut gogoratzen.

Etxeetan bizi ohi genuen giroa eta eskolarena ez zetozen bat. Lehenengo aldea hizkuntzarena zen, noski. Etxean euskaraz egitera bultzatzen gintuzten eta eskolan, garai hartan normala zenez, erdara hutsean.

Baina hizkuntzaz aparte baziren alde nabarmenak. Etxean gai irristakorrei buruz gutxi hitzegiten zen arren, umea ez baita sekretuak gordetzeko egokiena, desberdina zen etxean sumatzen genuena eta eskolan esaten zitzaiguna. Espainiako azken hamarkadetak historia esplikatzerakoan ez zetozen bat eskolan esandakoa eta Radio Parisetik burruna artean entzuten zena. Batean Franco jaingo txiki bezala jartzen zitzaigun aldare gainean eta eskolaz kanpo, berriz, bere aldekoek bi apaiz hilerazi zituztela jakin ahal izan genuen. Batzuek "gorriak" madarikatzen zituzten eta etxean ez genuen horien aurkako epai zorrotzik entzuten.

Kristautasunean hezitzen ahalegintzen ziren. Egunero egunero halako txartel bat bete behar izaten genuen entzundako mezak, egindako jaunartzeak, ekintza onak, kalkulatorioak eta abar apuntatuz. Ahaleginak eta bi egiten zituzten Jesusen Bihotzarenganako debozioa suspertzeko. Benetan damu det garai hartako Jesusen Bihotzeko dotrina gorde ez izana. Bertan esaten zenez, horixe da behintzat daukadan oroitzapena, Jesusen Bihotzaren herri kuttun batean, Espainian, bizi ginen. Benetan herri katoliko sutsua, kristautasuna lau haizetara zabaltzeko berariaz aukeratua. Hori aurrera bideratu ahal izateko gidaria, garai batean Moises izendatua izan zenaren antzera, Franco kaudilloa zen. "Caudillo es el hombre providencial que Dios envía a los pueblos para librar de las ataduras y llevar a cabo la liberación... Así como envió a Moisés para liberar de la esclavitud de Egipto, de la misma manera se ha dignado enviarnos a Franco para liberarnos de los rojos separatistas..." Orain dela berrogei urteko kontuak

dira eta beharbada okerrren bat egon daiteke lehenago esandako hitzetan. Baina gogoan ditudanak, oker agian, horietxek dira.

Hemen aipatu ditudanak ez dira salaketa gisa aurkezten, ezta urrik eman ere! Gure eskerrik beroenak merezi dituztela esan dut hasieran eta horretan jarraitzen dut.

Barkakizun

Oker handi bat egingo nuke garai haietako kontuak eta kantuak gaurko ikuspegiarekin juzgatuko banitu. Ezin dira gertauek lekuz kanpo juzgatu. Ez dugu, gainera, inor auziperatu nahi.

Lehenago fraileenganako harremanetan izan ohi genuen beldurra aipatu da. Baina hori ez zen eskolako kontua bakarrik. Beldurra nien gurasoei, apaizei, medikuari, alguazilei eta zer esanik ez berauen buru zen Castorri. Etxeetan begi onez ikusten zen fraileen zorrotztasuna. Zenbat eta irakasle gogorrago orduan da bere lana istimatuago. Eskolan zigorren bat izandako berririk jasotzen bazuten "okerren bat egingo zuen" esatearekin batera, osatu eta borobildu egiten zen etxean eskolako kastigua. Hau ez zen fraileekin bakarrik gertatzen. Erretereriako eskola publikoetan ere bazen horrelako zorrotz-fama zeukan apaizarik.

Politikaren ikuspuntutik, berriz, onargarria ez bada ere, ulertzekoa da fraileen jarrera. Frankismo giroan fraile egindakoak ziren haietako batzuk. Haiek edandako upeletik eskaintzen zigiten gure egardia aseko zutelakoan. Erljiioaren eta frankismoaren arteko lotura nabaria zen: mezatan edo Corpus eguneko prozesioan jotzen zuten himno nazionala, paliopean egindako prozesioak, elizako ateetan jarritako "martirien" zerrendak, mezatan esan beharreko "et famulos" agintarien aldeko otoitza, gotzainak izendatzeko sistema... Testuinguru horretan eskola ez zen salbuespen.

Irakaskuntzaren metodologiari dagokionez, bistan da zenbaitzuk "la letra con sangre entra" esaera gogoan zutela. Fraileek lan asko egiten zuten. Koadernoak etengabe zuzentzen zituzten eta, esan bezala, bakoitzaren jarraipena gertutik egiten zen. Bezperan egindako ariketak goizean goiz han egongo ziren begi zorrotzez zuzenduak Fraileen eskolatik maila on batekin irten ohi zuten gazteek beste inongo eskolaren inbidiarik gabe. Seminariora, beste ikastetxeren batera, akademia batera edota lanera abiatzerakoan ez zuen hutsegingo eskolan saiatutako mutilak. Hori ongi ezagutzeko zoria izan nuen Zallako eskoletara joan aurretik egindako azterketan. Hemengorik ez zuen hutsegiten. Eta hori istimatuzkoa da.

Ez dut saio hau meritu handiko beste puntu bat aipatu gabe utzi nahi. Bazuten fraile batzuk eskolako ikasle ohien elkarte sortzeko gogoak. Beste eskoletan ibilitako gazteak halako elkarteetan biltzen ziren harremanak ez eteteko, elkarren berri jakiteko eta eskolarekin harremanetan jarraitzeko. Horrelako asmoren bat zebilkiten, oker ez banago, Ereintza elkarte eskolan bertan sortu zenean. Ereintza jaio zen, martxan jarri zen, baina ez zuen ikasle ohien elkarte egiturarik hartu, aitzitik, bere bidetik jarraitu zuen elkarte sortu berriak. Eskertzekoa da, benetan, une hartan erakutsi zuten zabaltasuna eta, artean mukizu batzuk baino ez ginenon aurrean, azaldutako errespetoa.

Irakaskuntzan egindako lana ez da sarritan esker onekoa izaten. Akatsak akats eta okerrak oker, askoz handiagoa da egindako ahaleginaren alde ona eta bikaina hemen ereindakoaren emaitza. Guzti horregatik, zorianak eta eskerrik asko.